

COVID 19 INFORMAZIOAREN EGUNERATZEA

Donostian, 2020ko urriaren 30ean

Familia agurgarriak,

Azken egunotan jasotzen ari garen albiste eta informazioen arabera, COVID 19ak sorturiko **pandemiaren bilakaera okerrera** egiten ari da gizartean. Hori dela eta, asko dira aste honetan gizarteko arduradunak hartzen ari diren neurri berriak.

Ikastolako bizitzari dagokionez, eta orain arte **gela barruetan** hartzen ari garen **neurriak eraginkorrak** direla ikusita, Osasun Sailak atariko eta zaintzako garaietan ipini du arreta. Hori horrela, hemendik aurrera, LH3. mailatik gorako ikasleen kasu positiboan aurrean ikasleek **jolas-orduan eta eguerdiko zaintza garaian** kideekin dituzten harremanei buruz galdegingo digute, eta tarte horietan segurtasun-neurriak betetzea erabakiorra izango da inguruko kideak etxeratu behar diren ala ez erabakitzeko.

Hori dela eta, une horietan **maskara uneoro modu egokian jarrita edukitzearen garrantzia** azpimarratu nahi dugu, baita hamaiketakoa jateko maskara jaitzita eduki behar denetan inguruko kideekiko distantzia bermatzeak duen garrantzia ere. Ikastolan neurri horien lanketa bideratzen ari gara etengabe ikasle guztiekin, baina etxeetan ere guztion segurtasunerako ezinbestekoak diren neurri horiek lantzea ezinbestekoa da, eta **zuen kolaborazioa** eskatzen dizuegu. Bestalde, musuko eraginkorrak erabiltzeko deia ere egiten dizuegu.

Aldaketa horiez gain, orain arte ezarri ditugun prebentzio-neurri guztiak betetzen jarraituko dugu, eta garrantzitsua da guztiok argi izatea **Ikastolara bertaratzeko ezinbestekoa izango dela osasuntsu egotea**, inolako sintomarik gabe alegia.

Hala eta guztiz ere, badakigu egoeraren bilakaerak aldaketak ekar ditzakeela gizarteko arduradunek hartuko dituzten neurrietan, eta Ikastola egokituz joango da egunetik egunera. Horren adibide da datorren asterako deitua dagoen Guraso Ordezkarien Bilera modu telematikoan egiteko erabakia.

Azkenik, eta presentzialtasunarekin loturik, konfinamendu orokor baten aurrean **hirugarren agertokiaren lanketa intentsifikatu** dugu, Ikastolatik eman beharreko erantzuna ahalik eta egokiena izateko. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu ikasle bakoitzaren **etxeko egoera teknologikoa ezagutzea**. Hori dela eta, gai horri buruzko inprimaki bat betetzeko eskatu nahi dizuegu. Hemen duzue bete beharreko [galdetegia](#).

Besterik gabe, Ikastolan jarraitzen ditugun segurtasun neurri guzti hauek **Ikastolatik kanpo ere** betetzearen garrantzia azpimarratuz agurtzen gara.

Mila esker guztioi zuen elkarlanagatik.

En Donostia, a 30 de octubre de 2020

Estimadas familias,

Según las noticias e informaciones que estamos recibiendo en los últimos días, **la evolución de la pandemia** generada por el COVID 19 está **empeorando** en la sociedad. Por ello, son muchas las nuevas medidas que están tomando los responsables sociales esta semana.

En cuanto a la vida en la ikastola, y ante la **eficacia de las medidas** que hasta ahora se están adoptando **en el interior del aula**, el Departamento de Salud ha centrado su atención en los tiempos de recreo y de mediodía. Así, a partir de ahora, ante los casos positivos de los alumnos a partir de LH3, nos preguntarán sobre las relaciones de los alumnos con sus compañeros durante **el recreo y el mediodía**, y el cumplimiento de las medidas de seguridad en estas franjas será determinante para decidir si los miembros de alrededor deben o no irse a casa.

Por ello, queremos subrayar **la importancia de mantener en todo momento la mascarilla puesta de forma adecuada**, así como garantizar la distancia con los miembros del entorno en los momentos en los que hay que tener la máscara bajada para comer el almuerzo. En la ikastola estamos trabajando continuamente estas medidas con todos el alumnado, pero también es imprescindible trabajarlas en casa, ya que son imprescindibles para la seguridad de todos. Por ello os pedimos **vuestra colaboración**. Por otra parte, también os pedimos que hagáis uso de mascarillas eficaces.

Además de estos cambios, seguiremos cumpliendo con todas las medidas preventivas que hemos implantado hasta ahora, y es importante que todos tengamos claro que **para acudir a la Ikastola será imprescindible estar sano**, es decir, sin ningún síntoma.

A pesar de ello, sabemos que la evolución de la situación puede suponer cambios en las medidas que tomarán los responsables sociales y la Ikastola se irá adaptando cada día. Ejemplo de ello es la decisión de celebrar de forma telemática la Reunión de Padres Delegados que está convocada para la próxima semana.

Finalmente, y en relación con la presencialidad, **hemos intensificado la planificación del tercer escenario** ante un confinamiento general, para que la respuesta desde la Ikastola sea la más adecuada posible. Para ello, nos parece importante **conocer la situación tecnológica de los hogares** de todo el alumnado. Por ello, os solicitamos que rellenéis un formulario sobre este tema. Aquí tenéis el [cuestionario](#) a cumplimentar:

Nos despedimos remarcando la importancia de que todas estas medidas de seguridad que seguimos en la Ikastola se cumplan **también fuera de la Ikastola**.

Gracias a todos por vuestra colaboración.

ZUZENDARITZA TALDEA